

TRISTE NAGO

David Fernández Rodríguez, 17 urte

Santurtzi

Triste nago. Triste nago gaur goizean, baina atzo arratsaldez ere triste nengoen. Triste bizi naiz, baina ez dakit zergatik. Esan dezakegu nire bizitza tristeturik dagoela jaiο nintzenetik eta horrela jarraitu behar duela bukatu arte. Tristura kentzen ikasi nahiko nuke, batzuetan pentsatzen dut horretarako gauza alaiak bilatu behar ditudala, baina non? Telebista jarri dut, lau ordutan milaka gauza ikusi ondoren pentsatzen hasi naiz eta zera ondorioztatu dut: triste nago. Egun batean tristura kendu zitzaidalā pentsatu nuen, nola baina? Ni baino tristeago bizi zen bat ezagutu nuen: emazteak utzi egin zuen eta lanetik bota zuten, atso bat aurretik eraman zuelako. Kamiolaria baitzen. Ondoren alkoholarekin hasi eta halako batean txakurra labean sartu zuen jatekoa prestazen zegoela uste zuelakoan. Bere txakurra maite zuen, munduan ezer baino askoz gehiago. Gizona triste zegoen, ni baino askoz gehiago ziurrenik, baina nire tristura aldentzen zihoala, neure buru madarika-

tua berriro hartu zuen lepotik, honelako galdera bortitza nire burmuinak bota zidanean: zergatik dago triste gizon hau, emakumea eta txakurra izan eta kamioi polit baten gidari izan ondoren, zuk bizitzan ez duzu horrelakorik inoiz izan! Ezin dut txakurrik izan, alergia dudalako. Alergia mordoa daukat: txakurrak, katuak, albarikokea, indabak, esnea, etab. Horrek tristetu egiten nau askotan, nik katu baten jabe izan nahi dudalako. Behin hamster bat izan nuen, baina bigarren egunean, kaiolan zegoelarik, bere buruaz beste egin zuen, seguruenik nire ondoan triste sentitu zen eta horregatik jan zuen, jolas zedin sartu nuen boligrafoaren tinta. Boligrafo asko ditut etxean, gorriak batez ere, idaztea baino gauzak zuzentzea gustoko dudalako. Perfekzionista naizela esan zidaten behin ikastolan, beno behin baino gehiagotan. Baina nire bizitza ez da bat ere perfektua. Ikastolan ez nuen lagunik, jendeak arraroa nintzela esaten zuen eta guzti honen arrazoia bilatu nahian neure bizitza erdia pasatu ondoren jendearen esanei kasurik ez egitea erabaki nuen. Telebistan entzun nuen. Telebistako neska ikaragarri jakintsua da, gainera oso polita, eta nire amonak dioen arabera, diru mordoa bereganatzen du hilabetero. Egunero ogia hartzera noanean bera bezalako neska batekin topo egiten dudala amets egiten dut baina oraindik ez da azaldu. Seguruenik ez du ogia gustoko edo beste okindegi batean erosten du ogia. Nire etxe ondoan okindegi bat dago, oso zaharra da. Izteko zorian dago Supermakroa ireki zuetene-

tik, honek ere triste jartzen nau. Supermakroak beldurra ematen dit, bai xelebrea da, baina serio-ski diotsuet. Jende asko dago han eta horrek barre-garri geratzeko aukerak igoarazten ditu, horrek ere triste jartzen nau. Gainera askotan tristetu naiz arrazoi honengatik: horregatik ez dut jendearekin berba egiten normalean. Telebistak ez du nitaz barre egiten, ordenadoreak ere ez. Ordenadorez noizbait jendearekin hitzegin dut, ez nau jendeak ikusten eta hori atsegin dut, jendeak ikusi ezkeru urduri jarri eta barre-garri geratzen naizelako. Baina aurrekaldean dudan pertsonarekin hitz egitea eta hau ikusi ezinak triste jartzen nau. Horregatik internetez hitz egiteari utzi egin nion. Beno, pertsona bat ezagutu nuen eta honekin oraindik hitz egiten dut. Ez nuen kontatu nahi, ez diodalako inori kontatu, ezta amonari ere. Amonarekin bizi naiz, Josefina du izena. Berarekin hitz egiteak ez dit lotsarik ematen, gosea dudanean harekin hitz egin behar dut, eta jango ez banu hil egingo nintzateke eta horregatik nire amonarekin hitz egitea nahitanahiezkoa zenez, berarekin lotsarik gabe mintzatzen ikasi dut. Aitona hil egin zen, ez, ez zuelako hitz egiten eta ez jatearren hil zelako, amonak esan zidan cancerdelpulmonek hil zuela. Gizon txarra izan beharko du cancerdelpulmon jaunak, nik, aldiz, ez nuke inoiz inor hilko. Horregatik nire organagailuan ez dut gerra jokorik sartzen. Jendea akabatzea bekatua da eta amonak dio bekatuak ez dela egin behar. Beno ez dio amonak, Bibliak dio. Biblia nire amonaren liburu bat

da. Nik askotan irakurri dut baina ez dut gustoko. Ikastolan erakutsi zidatenaren arabera, zientzia fikzio sailean sartzen den liburu horietariko da, zeinetan gauza irrealak eta fantastikoak ageri diren. Nik gustoko ditudan liburuak entziklopediak dira. Munduari buruzko gauza asko ezagutu ditut haiei esker. Mundua handia da, amonak esan zidan behin munduari bira ematea ia ezinezkoa dela. Nik entziklopedian irakurria dut Colon izeneko gizon lodikote batek bira eman zuela, ez ez ez ... Magallanes izan zen... edo Getariko famatu bat... ez dakit. Baina haiek carabela bat zuten eta nik ez. Behin portura joan nintzen caravela baten prezioa galdetzen, munduari bira ematea ideia polita zela iruditu zitzaidan. Baina hauetariko bat erosteko telepiztan 60 urtez egin beharko nuke lan eta horrek triste jartzen nau. Nik pizza ez dut bat ere gustoko, oso amerikarra iruditzen zait, gainera pizza jatean ez dute ogirik banatzen eta nik ogia maite dut. Egunero okindegira joaten naiz ogia hartzera... uste dut kontatu dudala hau jadanik. Aurreko egunean neska bat ezagutu nuen interneten. Bai, badakit ez dudala gustoko ikusten ez dudan jendearekin hitz egitea, baina berak kamara bat du eta idazten duen bitartean bera ikusten dudanez, berarekin hitz egiten dut askotan. Nik ez dut kamerarik. Garestiegiak dira, amonaren pensioak ez du luxu askotarako ematen. Amona beti dabil protestaka pensioa dela eta, gobernuak dirua zor dio nire amonari. Hori esaten du berak eta ez da nire amona gezurra esaten duen horieta-

koa, ez horixe! Ilegorria da, telebistako neskaren antzekoa eta berarekin tristurak alde egingo zuela uste izan nuen momentu batez. Baina ezin dut ikusi, solilik kameran, bera alemaniakoa delako. Horrek triste jartzen nau, baina hau nire bizitzan dauden tristuren artean, tristura hoberena dela esango nuke. Margerine deitzen da. Izen bitxia da ezta? Alemanian asko deitzen omen dira horrela. Ingeleraz polito hitz egiten du, bai, ez nire antzera. Niri ingeleraz nire osabak irakatsi zidan, txikitan. Nire osaba Martin deitzen zen, hil zen arte. Baina ez Martin egunkari saltzailea bezala, baizik eta Maaaaarchin Ingalaterran jaio zelako. Hala ere, euren izenak berdin idazten dira. Berak esaten zuenez pronunciation mutil, pronunciation! Osaba gurekin 3 urtez bizi izan zen. Gaztetan Ingalaterran amonak izandako abentura batetik dator osaba, ondoren Ingalaterran bizitzen utzi zuen amonak eta aititaren azken urtetan gutun baten bidez euki zuen amonak bere umearen berri eta aitona hiltzean gurekin bizitzera etorri zen. Osaba diruduna zela esan zigun, baina etorri bezain laster bere enpresa guztiek porrot egin zutelakoan gaude sosik ere ez zuen ekarri eta. Gurekin igaro zituen urteetan ondo konpontzen ginen eta asko hitz egiten genion elkarri. Berak kendu zidan munduan zehar ibiltzeko ideia. Honela esan zidan hil aurretik: “mutil, nik ikusi det mundua eta hi hemen baino hobe ez haiz inon egongo, maite zak heure lurra eta utziek besteoi eurea maite dezatela”. Osaba goiz batean hil zen

ohean, egun batetik bestera, bere enpresen antze-
ra. Berataz geratu zaidan bakarra ingelesa da, ez
dut gehiegi gogoratzen, jada. Ingelesa polita da.
Musika ingelesez entzuten dut. Margerinek ere
ingelesa du gustoko, germanieraz hitz egiten due-
nean ezin dut ulertu, horregatik gure artean inge-
lesez egiten dugu. Margerine Wolsburgon bizi da
eta garagardoa du gustokoen. Nik ez dut garagar-
dorik edaten, batzuetan Zumosol erosten dit amo-
nak fuerte fuerte ibiltzeko baina nire gorputzak
bitamina falta du medikuen ustetan eta ahul ahul
egon ohi da. Nire gorputza egin zuten diseinado-
reek ez zuten inoiz Nobel saria irabaziko.
Betaurrekoak ditut miopea naizelako, eta nire adi-
neko guztiak baino motelagoa naiz. Badago ondo-
ko klasean ni baino motelagoa den neska bat, lodia
bera. Baina Dermofagisil erosi duenetik, argaldu
egin da eta hobe izango dut isilik egotea berak ere
ziur irabaziko didalako. Nire gorputza eraiki zuten
ingeniariak ez nituen ezagutu: aita eta ama heroi-
nak eraman zituen. Historia hau ez dut ongi eza-
gutzen, amonak tristeegia dela esaten du eta nire
bizitzak badu tristetasun maila nahikoa. Zeruan
ezagutuko ditut amonaren Bibliaren esanetan,
baina ni zerura helduko ez naizela ez dut uste,
espaziuntziak carabela baino askoz garestiagoak
direla esan zidaten Carrefour-en. Carrefour-en
egon naiz, baina ez esan ezer okindegiko jabeari,
zin egin nion ireki zutenean ez nintzela joango
baina... polita da Carrefour, handia baita.
Ordenagailu politena ikusi nuen han, ederra,

baina han ez zen Margerine ageri eta horrek triste jarri ninduen. Etxera bueltatu nintzen. Ez nion ezer esan amonari, bekatua omen da zin egindakoa ez betetzea eta amona haserratzek triste jartzen nau. Amona ez da inoiz haserratzten, ia inoiz. Gehienetan nire erruz izaten da eta triste jartzen nau horrek, baina berak orduan barkatu egiten nau eta beti nik gustoko dudan janaria egiten dit afaltzeko. Ez dut etxean bazkaltzen, bokadiloa hartzen dut parkean eta ahateei ogia botazen diet. Askotan ogi guztia botatzen diet ahateei, orduan okindegira arratsalde ere joan behar izaten dut, eta okindegira noanean amets egiten dut... Margerine ezagutu nuenetik ez noa okindegira ia inoiz. Etxean amets egiten dut, eta Alemaniara noala imajinatzen dut. Alemania handia da eta historian zehar garrantzi handikoa dugula esango nuke nik. Nik eta entziklopedia idatzi zuten gizonak. Bart gauean Alemania atera zen telebistan: Sachserign. Moto karrera bat zen eta osorik ikusi nuen han Margerine agertuko zelakoan. Ez zen agertu eta Daniel Pedrosa izeneko txepel batek irabazi zuen. Ez ditud motorrak gustoko. Nik txikitan motor bat izan nahi nuen baina amona erosketetan joan zen egun batean motorzale batek harrapatu egin zuen eta hor amaitu zen motorrengan nuen irrika. Ospitalean hiru hilabetez egon ginen, han ezagutu nuen lehen aipaturiko gizon hura, kamiolaria. Amonak seniderik ez duenez, nik ere ospitalera joan behar izan nuen. Ospitala ez zen nire bizitzaren tristura gainditzeko urrats egokiena

izan. Zuria da ospitala, zuria nire kolore gogokoe-
na da. Baina zuriak diren gauzak erraz zikintzen
dira eta horrek ere triste jartzen nau. Margerine
beltza da. Beltza baina oso polita. Zuria izango
balitz zikindu egingo litzateke txokolatea jatean.
Beltzaranek ez dute txokolaterik jaten. Hori esaten
du amonak. Txokolatea erosteko diru mordoa
eman zidan behin amonak eta nik galdu egin
nuen, horregatik txokolatea erostea ez dut gusto-
ko. Hala ere, hau jateko ohitura ezin izan nuen
kendu, txokolatea asko gustatzen zait. Baina txo-
kolatea baino Margerine dut gustokoago. Oso jato-
rra da. Berak dio ni ere mutil jatorra naizela, baina
hitz hauek triste jartzen naute haren ondoan egon
ezin naizelako. Behin haren ondoan nengoela
amets egin nuen. Orduan nire bizitzan behin triste
ez nengoela sentitu nuen. Amets bat zen. Guztiok
amets egiten dugu zerbaitengatik borroka egin
behar dugula. Hori esaten du amonak askotan.
Nire ametsak ez dira horrelakoak. Nik elefanteekin
amets egiten dut. Elefanteak zooan bizi diren ani-
malia galantak dira. Behin zoo batean egon nin-
tzen. Osabak eraman ninduen, nire urtebetetze
egunean. Ez dut gustoko urteak betetzea. Urtero
nire adinak aurrera egiten dueneko egunean nire
bizitza guztian egindako pausuak aztertzen ditut
eta azkenik ondorio batera heltzen naiz. Tristeia da
ondorioa. Margerinek bizitza polita dauka.
Argazkiak ateratzen ditu egunean, argazkilaria
delako. Berak esaten du bere lana oso neketsua
dela, egunean zehar beti hona eta hara ibili behar

duelako. Nik, hala ere, gustoko dut lan hori, baina, lehen esan dizuedan bezala, ez dut kamerarik. Diru falta, amonak esaten duen bezala: ez da zorientsuago diru gehien duena baizik eta gutxiago gastatzen dakiena. Bigarren horrek, aldiz, ez du kamerarik inoiz izango. Amonak kamerarik ez duenak ondoan beste inor edo ezer izango duela dio. Nik ez dut kamerarik. Nik ez dut inor edo ezer ondoan.

Mundua txikiegia da askotan. Guztiok buru barnean ditugun ideak aterako bagenitu, ziurrenik ez lirateke munduan sartuko. Munduan dauden gauza guztiak ere ez lirateke gure buru barnean sartuko, inola ere ez. Bitxia da mundua. Lurra kontinenteetan banatzen dugu. Ura ozeanoetan. Ideiak ez ditugu banatzen eta ondo antolatuta daudenik ez du inork zalantzan jartzen. Horregatik iruditzen zait niri mundua txikia dela. Mundua nahi dugunean banandu egiten dugu, handiegia iruditzen zaigulako, ideiak, aldiz, inork ez ditu banandu; guztiok badakigulako mundua txikia dela. Mundua txikia zen Margerine ezagutu nuen egunean eta are txikiagoa izango da harekin topo egingo dudanean. Baina egun hori heldu arte mundua kontinenteetan banatuko da.